

Armanak Uskara

edo

Liberrouko Egunaria

1914 gerren ourtheke

Jinkoa eta Herria!
Zuhurtarżuna eta lana!
Eta bizı bethi Uskalduna!
Iao! Iao!
I-a-a-a-a-o-o-o-o-o!

SALTZEN DA

Maolen

TEILLAGORRY enian

Atharrazten

MENDIONDO SAUTZ enian

Prezioa : SOS BAT



BEGITHARTE HORIEK :

- ⊕ *erran nahi da* : Estiapen hastia *edo* argizagi oso.
- ⊕ " Argizagi azken laordena.
- ⊙ " Gorapen hastia *edo* argizagi berri.
- ⊕ " Argizagi lehen laordena.

OURTHEKO BESTA ALDAKORRAK :

SETUAJESIMO, *ourtharila* 8^{an} ; — HAOSTE, *baranthaila* 2^{an} ;
 — BAZKO, *aphirila* 12^{an} ; — ERROGAZONIAK, *maiatze* 18^{an},
 19^{an} eta 20^{an} ; — SALBATORE, *maiatze* 21^{an} ; — PHENTEKOSTE,
maiatze 31^{an} ; — BESTABERRI, *aramaiatze* 11^{an} ; — ABENTUKO
 LEHEN IGANTIA, *azaro* 29^{an}.

LAOR THENPORAK :

Martcho 4ⁿ, 6ⁿ eta 7ⁿ.
 Arramaiatze 3ⁿ, 5ⁿ eta 6ⁿ.

Buruila 16ⁿ, 18ⁿ eta 19ⁿ.
 Abentu 16ⁿ, 18ⁿ eta 19ⁿ.

EKHI ETA ARGIZAGI ULHUNTZIAK :


Ekhi ulhunte phartezkoa, *baranthaila* 24^{an}, ikhousiko eztiena Uskal Herrian. — Argizagi ulhunte phartezkoa ikhousiko diena Uskal Herrian. — Ekhi ulhunte osoa, ikhousiko diena Uskal Herrian. — Argizagi ulhunte phartezkoa, ezin ikhousiko dena Uskal Herrian.




ERRAZI
SNOILVAE




HANITCH KHASU HOUNI



ZIBEROUKO armanaka eginik da bi kartillaz algarreki josirik. Lehena, mehe mehia, hamabi hilabeteren egunaria dena, ourthiaren urhentzian berheztekoa da nahidenaren egiteko. Bigarren kartilla edo phartia, mintzo dena istoriaz, aholku hounez laboriarentako, errezetaz, etc., harek ourthe oroz behar du begiratu arrankurareki. Hollak markaturik dutu bost ourthez arrount. Seigerren arraldia, aourthen hasten da.



ERRAN ZAHAR



Herriek bere lege, etchek bere astura.

→ Herriz aldatzia da zaharrentako heriotzia.

Hik maka, nik saka.

Hugun dudana gaitz diostana

Sinhets ziroiat, nahiz barhana.

2 Hihaork lan egin ahala, bestek degiten eztutzala.

Hil adi, alaba haite.

— Hila lurphera, biziak asera.



Hil ordugabe bere hounaz emaitza zeginak, khaosi zezan zahartze gaitza.

Hire gaitza eztuk net gaitza, hire aizoaren beharrila ezpadaitsa.

Hirour gutik eta hirour hanitchek galtzen die ihour guti ukhen eta hanitch gastatziak; guti jakin eta hanitch erastiak; guti izan eta hanitch izan oustiak.

Hitz eztiak mihia zaortzen eztik.

Hobe da bakiareki arraotzia, eziez aharrareki bilarraozia.

Hobe da ichil egoitia, eziez gaizki mintzatzia.

Hobe da houn guti eta izan kito, eziez houn thusto eta zorrez itho.

Hobe da zahi hutsa, eziez ahoa hutsa.

Hora ezta harrikaldiz mantsotzen.

→ Horak ez berak zahia jan, ez olloer eitzu.

→ Horak noun mina, han mihia.

Hor gose, loz ase.

Hori duk ountsa errana, bena erakharrak egin dezana.

Hotzak eztu acholik betatchiaren, ez gosiak zetatsiaren.





OURTHARILA

Egunak luzatzen dira oren batez.




- ☽ l. l., 4ⁿ, arrastiriko or. eta 18^m.
- ☾ a. o., 12ⁿ, goizeko 5^{or} eta 18^m.
- ☿ a. l., 19ⁿ, gaiherdi eta 39^m.
- ☼ a. b., 26, goizeko 6^{or} eta 43^m.

BARANTHAILA

Eg. luzatzen dira oren I eta erdiz.



- ☽ l. l., 3ⁿ, goizeko 10^{or} eta 42^m.
- ☾ a. o. 10ⁿ, arrastiriko 5^{or} eta 41^m.
- ☿ a. l., 17ⁿ, gaiherdi eta 32^m.
- ☼ a. b., 25ⁿ, gaiherdi eta 11^m.



- | | |
|----------------------|-------------------------------------|
| 1 Ostegun. | ZIRKONZISION. |
| 2 Ostirale. | s. Makari. |
| 3 Neskanegun. | s ^a Jenevieva. |
| 4 Igante. | s. <i>Rigobert.</i> |
| 5 Astelehen. | s ^a Amelia. |
| 6 Asteharte. | APHARIZIO. |
| 7 Astizken. | s ^a Meliana. |
| 8 Ostegun. | s. Luzien. |
| 9 Ostirale. | s. Julien. |
| 10 Neskanegun. | s. Marzien. |
| 11 Igante. 1. | s. <i>Teodose.</i> |
| 12 Astelehen. | s ^a Tazieta. |
| 13 Asteharte. | J. K. Bathciaa. |
| 14 Astizken. | s. Ilera. |
| 15 Ostegun. | s. Phaole, erm. |
| 16 Ostirale. | s Marzel. |
| 17 Neskanegun. | s. Antoni. |
| 18 Igante. 2. | J. K. <i>Izen</i> S ^{ia} . |
| 19 Astelehen. | s. Kanut. |
| 20 Asteharte. | s. Fabien eta Sebast. |
| 21 Astizken. | s ^a Añes. |
| 22 Ostegun. | s. Bizente. |
| 23 Ostirale. | A.B. Ezkontz. |
| 24 Neskanegun. | s. Timote. |
| 25 Igante. 3. | J. <i>Phaol. konb.</i> |
| 26 Astelehen. | s ^a Batilda. |
| 27 Asteharte. | s. Johane Kris |
| 28 Astizken. | s. Amadeo. |
| 29 Ostegun. | s. Franz. Sal. |
| 30 Ostirale. | s. Martina. |
| 31 Neskanegun. | s. Petiri Nol. |

- | | |
|---------------------|-----------------------------|
| 1 Igante. 4. | s <i>Ignazio.</i> |
| 2 Astelehen. | KHANDERALLU |
| 3 Asteharte. | s. Blasi. |
| 4 Astizken. | s ^a Jana, Val. |
| 5 Ostegun. | s ^a Agata. |
| 6 Ostirale. | s ^a Aman. |
| 7 Neskanegun. | s. Romual. |
| 8 Igante. | <i>Setuajesimo.</i> |
| 9 Astelehen. | s ^a Apolina, |
| 10 Asteharte. | s ^a Eskolaztika. |
| 11 Astizken. | A. B. Lourdako. |
| 12 Ostegun. | s. Tita. |
| 13 Ostirale. | s. Jilbert. |
| 14 Neskanegun. | s. Valenti. |
| 15 Igante. | <i>Setsajesimo.</i> |
| 16 Astelehen. | s ^a Julieta. |
| 17 Asteharte. | s. Hiji. |
| 18 Astizken. | s. Flavien. |
| 19 Ostegun. | s. Konrad. |
| 20 Ostirale. | s. Onesimo. |
| 21 Neskanegun. | s. Eucher. |
| 22 Igante. | <i>Kinkajezimo.</i> |
| 23 Astelehen. | s. Petiri Dam. |
| 24 Asteharte. | J. MATHIAS, ap |
| 25 Astizken. | HAOSTE. |
| 26 Ostegun. | s. Romano.. |
| 27 Ostirale. | Elhorr. Khor. |
| 28 Neskanegun. | s. Rufi. |



MARCHOA edo OSTAROA

Egunak luzatzen dira 2 orenez.




- ☿ l. l., 5ⁿ, goizeko 5^{or} eta 12^m.
- ☽ a. o., 12ⁿ, goizeko 4^{or} eta 28^m.
- ♃ a. l., 18ⁿ, arratseko 7^{or} eta 49^m.
- a. b., 26ⁿ, arratseko 6^{or} eta 18^m.

APHIRILA edo JORRAILA

Eg. luzatzen dira oren 1 eta erdiz.



- ☿ l. l., 3ⁿ, arratseko 7^{or} eta 50^m.
- ☽ a. o., 10ⁿ, arrastiriko or. eta 38^m.
- ♃ a. l., 17ⁿ, goizeko 8^{or} eta 1^m.
- a. b., 25ⁿ, goizeko 11^{or} eta 31^m.



- 1 **Igante.**
- 2 Astelehen.
- 3 Asteharte.
- 4 Ast. *IV Th. B.*
- 5 Ostegun.
- 6 Ost. *IV Th. B.*
- 7 Nes. *IV Th. B.*
- 8 **Igante.**
- 9 Astelehen.
- 10 Asteharte.
- 11 Astizken.
- 12 Ostegun.
- 13 Ostirale.
- 14 Neskanegun.
- 15 **Igante.**
- 16 Astelehen.
- 17 Asteharte.
- 18 Astizken.
- 19 Ostegun.
- 20 Ostirale.
- 21 Neskanegun.
- 22 **Igante.**
- 23 Astelehen.
- 24 Asteharte.
- 25 Astizken.
- 26 Ostegun.
- 27 Ostirale.
- 28 Neskanegun.
- 29 **Igante.**
- 30 Astelehen.
- 31 Asteharte.

- GOROZUM. 1^a.
- s. Leon, Baion.
- s^a Kuneconda.
- s. Kasimir.
- s. Luperkule.
- J. K. Lantza et Itz.
- s. Tomas Akin
- Gorozumako* 2^a.
- s^a Frantzes.
- 40 Martirak.
- s. Konstanti.
- s. Gregori handia.
- Suario s^a.
- s^a Matilda.
- Gorozumak* 3^a.
- s. Ziriaka.
- s. Patrik.
- J. Gabriel, ark.
- s. JUSEF.
- J. K. Zaori S^{ak}.
- s. Benedict.
- Gorozumako* 4^a.
- s^a Pelajia.
- s. Agapit.
- A. B. Anontz.
- s. Braolio.
- J. K. Odol. Prez.
- s. Justein.
- PASIONJA.
- s. Amadeo.
- s^a Balbina.

- 1 Astizken.
- 2 Ostegun.
- 3 Ostirale.
- 4 Neskanegun.
- 5 **Igante.**
- 6 Astelehen.
- 7 Asteharte.
- 8 Astizken.
- 9 Ostegun.
- 10 Ostirale.
- 11 Neskanegun.
- 12 **Igante.**
- 13 Astelehen.
- 14 Asteharte.
- 15 Astizken.
- 16 Ostegun.
- 17 Ostirale.
- 18 Neskanegun.
- 29 **Igante.** 1.
- 20 Astelehen.
- 21 Asteharte.
- 22 Astizken.
- 23 Ostegun.
- 24 Ostirale.
- 25 Neskanegun.
- 26 **Igante.** 2.
- 27 Astelehen.
- 28 Asteharte.
- 39 Astizken.
- 30 Ostegun.

- s. Huges.
- s. Frantzes P.
- A. B. Dolor.
- s. Isidro, aph.
- ERRAMU.
- s. Sisto.
- s. Herman.
- s. Albert.
- Osteg saintu.
- Ostir. saintu.
- Nesk. saintu.
- BAZKO.
- s^a Ermenejilda
- s. Justi.
- s^a Anasztazia.
- s^a Grazi.
- s. Anizet.
- s. Elutero.
- s. Leon IX.
- s. Teotimo.
- s. Anselmo.
- s. Sot. eta Kaio
- s. Jorgi.
- s. Zerazi.
- J. MARK, Eb.
- s. Klet.
- s. Antimo.
- s. Phaole K.
- s. Petiri, m.
- s^a Katalina, S.



FRAMAZOUNERIA ETA ERREJENTAK



SPALDITIK ezagun da, framazouek edo har-
ginbeltzek, gogatu diela Frantzian errel-
jioniaren osoki galeraztia, ezeztatzia, esko-
laren bidez.

Lan horren egitiari buhurri ziren, jeneralian, azken demboretara artino errejent eta errejentsa haboroak.

Berek errelijione bazien, maite zien igantez meza-
ren entzutia, Bazkoz beren komunioniaren egitia; baza-
kien ere, gisa oroz, aita-ama familiakoez ountsa
ikhousirik izateko hola hobe ziela eginik, eta beren
hounetan egin behar ziela.

Orai zounbat dira muta hortako errejent eta erre-
jentsak? Saldoa geroago eta tchipitzenago doa. Orai
heltzen ari da muta berri bat, harek ezpeitu batere
errelijionerik, harek ezpeitu erreljioniaren errespe-
turik batere, harek trufa egiten beitu erreljioniari,
harek hugu beitu erreljionia.

Zertarik jiten da hori? Framazouneriatik. Harek
dutu eginerazi eskolatik Khurutchen, erreljioneko
liburien, othoitzen, khentzeko lege hastialgarriak.

Khen bistatik goure Salbazale Jinkoaren potreta !
Debeka errejenter eskolan haurrer beren zeluko Aita-
ren aiphatzia ! Zer afrountia, bizia eman eta begi-
ratzen deikun Jinkoari buruz, Aitari buruz ! Zer desa-
fioa, herioa garhaitu dian eta goure hiltzian goure
Juje soberanoa, Juje ezinago photoretzia izanen
denari buruz ! Zer mounstrokeria haurraren bihotzari

buruz, hari bere zeluko Aitaren ez aiphatzia, eta geroztik feitian ukhaeraztia !

Zer erhokeria, eskolan orotako beharrenik den liburiaren, katichimaren debekatzia ! *Livre condamné*, liburu kondenatia, liburu hori, holako erakaspen baitezpadakoak emaiten beitu, haurrari ezaguterazteko, zer eginbidiak bethe behar dutian Jinkoaren eretzian, bere Aita-amen eretzian, protsimo lagunaren eretzian, bere buriaren eretzian.

Zer erhokeria, bizitzian orai berheziki hainbeste herrapide, hainbeste gal-bide, badiarelarik, haurraren begien utsutzia beharrenik diren jakitater buruz !

Beren lan tzarraren burutzeko, Harginbeltzek, egincrazi zutien beste lege elibat, fraidekentiari eta serora-kentiari eskola egiteko zuzenaren, libertatiaren, khentzeko.

Gero hasi dira eskoletako liburietarik erreljioniaren eta Jinkoaren orhitzapenen khentzen, eskola-etchetaryk khentu zutien bezala. Azken ourthetan zinez borogaturik izan da gaiza hori. Har bite, diala hoge ourthe egirik ziren ber izeneko liburiak, eta oraikoak, ala *Grammaire*, ala *Livres de lecture*, ala *Livres de morale civique*, *Dieu* izena, othoitzen aiphia egiten zien guñiak oro arra-houunkirik dira, hitzak khanbiaturik. Bazen liburu bat hanitch houna, ederra, houngigarria : *Le tour de la France par deux enfants* : laket ginen haren irakourten, goure haur demboran ; orai liburu houra paganotu die, erreljioniaren aiphu kontsolagarriak khentu dutie, hollak, han ziren imajinak, guneka khanbiatzez, beste gisa batetara emanaz. Frantziako istoria, arrahouunki die han erreljioniaren etsaiak goersten dutie, haien gezurrak, kalomniak, Elizaren eta haren aldekoen kontrekoak, arra-berritzen, emendatzen dutie. Haurrak behar du, oraiko eskoletan gezurra, phozoa, iretsi emeki, emeki, Aita eta Amak sobera jelostu gabe ; hortako errejent eta errejentsek

gordeko balinbadutie ere etchenkoer haurren kaierak eta zounbait aldiz liburiak.

Jaun Aphezkupiek ororek, bakhotch bat saiheitsian edo gibel egon gabe, sinatu dutie, Aita-Amer buruz eman dutien erakaspén ezinago serious elibat, zioielarik beren erranak *beren odolaz sinatzera, bermatzera* ekharririk liratekiela, beharra balitz. Frantzia barn hortan eta pe hortan, hanitch dira herriak haietan Jaun Apez-kupiek kondenatu liburiak, Aita-Amek berek errerazi beitutie; hanitch dira, ehunka, milaka, haurrak, etchetan egon beitira, eskolalat joan gabe, liburu gaistoa han etchekirik zeno; edo joan beitira herri aizoetako eskola katolikoetara, hanitch bide eginez, zounbait lekhutan.

Eta hori zen, eta hori da eginbidia. Zer, aberiak beren humiak gaizki erabilirik direnian, gaizten dira eta errabiatirik bezala jarten, buhurtzen, hume hourak gaizki erabiltzaler khentu nahiz; noulaz, Aita-Ama bihotza dienek utzten ahal dutie beren haurren arimak, herratzeko bidian ezartera, beren haurren bihotzak phozoazera, beren haurren enthelegiak utsutzera, berak khechatu gabe eta ahalaz azkar-kienik buhurtu gabe? Ezi, eztira bardin, ez hullanik ere, khorpitzari eginik diren minak eta arimari, bihotzari eginik direnak. Zounbat Aita-Amak, beren abere-tan etsemplu hartzeko lukie?

Hanithko errejent eta errejentser greuthgarri zaien, hola Framazoukentiari mithil neskato izatia, ordian badakizieia zer gogatu zaien Framazouer?

Orai artino, zinez emendatu dutugu eskola egilen pagak; errejent, errejentsa izatia, ofizio houna da, bena orano hobetu behar deiegu. Ditzegun emenda pagak, emendio hori izanen da haurren arimen saria; emendio hori esker, goure errejent eta errejentsek buru etchekiko die Aita eta Amer eta Apeher.

Frantziako Aphezkontiari, Elizari, khentu dugu, ourthekal, aphezen paga bezala elizen arranda, hilen meza-sari, *berrogei miliou*. Ditzagun eman, oraiko beren paga ederren gaña, *berrogei miliou* horik, errejent eta errejentser. Sos horren bidez bilduko dutugu ehikiago goure nahien burutzer a errelijoniaren kontre.

Houn da jakinik izan dadin zer izkiribatzen zian, Parisen egoitenden Framazouneriaren aitzindari batek igaran baranthallaren 13^{ian}, beste gibel thegietako gehiener.

Framazouneriako kargu gorenetan den aitzindari horrek galthatzen du beste Gibel-thegietako gehiener (L.: L.: S.: S.: LOGES SŒURS) ahal bezain beste lagungoa eman dezen, gisa oroz, **Ligue d'Action et de Défense laïques** deithu biltzarre suertari. *Ligue* delako harek bere erreglamentian izkiribu horik baddutu :

Art. 3. *La Ligue groupera autour des écoles laïques, dans chaque commune, tous les bons citoyens prêts à faciliter aux maîtres l'accomplissement de leur tâche d'éducation républicaine et à les soutenir énergiquement contre tous les obstacles.....*

Elle opposera une barrière infranchissable aux entreprises néfastes des associations catholiques (lehenago erranen zien : *cléricales* bena orai ez tie gordatzen haboro goure errelijione saintia egotchi nahi diela), *dites de pères de famille.*

Elizak, aphezkupiek, aphezek, berma Aita-Ama familiazkoen zuzenak, Elizak, aphezkupiek, aphezek, ethek, sustenga haurren eretzian Aita-Amen gehien goa; Framazouneriak egotch Aita-Amak eta ezar hourak beno gorago errejenta; horra hitz hoien zentzia.

Arren houna, gorago aiphatu Framazou gehien horren letera : *Paris, le 13 février 1913,*

T.: C.: V.: (erran nahi da : *Framazou* gehien *hanitch maitia*).

Permettez-moi d'appeler à nouveau toute votre bienveillante attention et celle des FF.: (erran nahi da : Framazouen) de votre res.: at.: sur la demande de subvention que j'ai l'honneur de vous adresser en faveur de la Ligue d'Action et de défense laïques.

J'ai le ferme espoir que votre R.: L.: tiendra à se joindre aux LL.: SS.: pour nous aider dans la lutte coûteuse, âpre, mais nécessaire que nous entreprenons.

Il faut redonner confiance aux instituteurs et améliorer leur situation. Il faut surtout provoquer un mouvement d'opinion qui obligera les Chambres et le gouvernement à voter au plus tôt les lois de défense de l'école laïque. **Cette campagne nécessite le concours matériel et moral des Loges.**

Avec nos très vifs remerciements, etc. E. DAUBE, Vén.

Zertako eginik da Zoizetate hori Ligue d'action et de Défense laïques deithia? Houna zer dion erreglamentariaren izkiribiak :

Ne voit-on pas se former partout des groupements de pères de famille chrétiens qui vont jusqu'à entraver, par l'action la plus directe, l'exercice des fonctions de l'instituteur primaire, jusqu'à détruire les livres qui sont fournis gratuitement aux enfants de nos écoles?


Partout le curé se dresse en face de l'instituteur sans Dieu, ce maître QUI DOIT FORMER DES CITOYENS AFFRANCHIS DU DOGME, LIBÉRÉS DES SUPERSTITIONS ET SOUMIS AUX SEULES RÈGLES DE LA SCIENCE ET DE LA RAISON.

Erran delako letera izkiribaturik zen igaren **baranthallaren 13^{ian}**. Frantziako gobernariak eta lege egilek; hantik **hoge**i eta hirour egunen burian ounhesten zien Framazouneriaren galthoua. **Martchoaren 6^{an}** egin zien lege bat errejenter, oraiko paga ederraren eta harez kanpo dutien abantallen haborokin, emaitia, ourthekal, **berrogei eta bost miliou liberaren emendicoua.**


Eta Aita Amak'ezpadira irazartzen eta jarten beren sustengazale egiazkoen alde, Aphezkupien eta Aphezen alde, hanitch ourthe gabe, errejent eta errejentsa Jinko gabek eta errelijione gabek, framazouen mouldian eraikiko dutie Frantziako haurrak ; goure haur khiristien bihotzetan, barna eta ezin edo nekez baizik sendotzekoa datekian min bat eginen die.

Ordian ageri dateke, aphezer eta Elizari ebatsi berrogei eta bost miliou horik, izan diratekiala Judaskeria baten saria, tradizione ezinago ahalkegarri baten saria.

Framazoukentiari haur khiristien arimen saltziaren saria; errejent eta errejentser Aita-Amek beren haurren erezian dutien zuzen sakratien saltziaren saria.



DEPUTATIEN ARRABERRITZIAZ



AURTHEN dateke, maiatzaren lehen eta hirourgerren igantian, deputatien haitatzia.

Egitate horren ondoramenak seriousentarik direlako, botz-emailek khasu egin behar dukie beren burien ez khordokatzero uztiari; beren kontzientzia khiristiari eta hari berari behar dukie behatu eta obeditu.

Eta zer dio kontzientzia khiristiak?

Dio botzaren ountsa edo gaizki emaitetik horra dircla lege hounak hala noula lege-gaistoak. Dio, deputatu baten haitatzia, legeegile baten haitatzia eztela noulako nahiko gaiza bat, haitatze hortan, botz emalek, beren eskietan beitutie, bai errelijioniaren, bai herriaren, bai familiaren intresak.

Ezi nouren ganik dutie lege egilek beren photere eta ahal handiak? Botz-emailen ganik. Geroztik, botz-emailia ogendant da, berak laguntu gizonak egiten dutian lege gaistoez. Botzak ountsa emanik izan baziren etzatekian hain beste itchouskeria Franzian, hainbeste nahaskeria bazterretan, hainbeste gerla eginik Jinko hounari, Elizari, haurren eretzian Aita-Amek dien zuzen ezinago baliouari.

Noula ezagut deputatu izan nahi den bat houn ala gaisto den?

Bere egitatetarik, bere sustengazaletarik, haren althe agertzen diren jentetarik eta kasetetarik, bai ere bere elhetarik, nahi bada elhetan hanitchek troumpatzen dutien tontochka edo gibel ezagutzen dutien botz emailiak.

Zounbat elhe gezurti, hitzemaite auher eztira barreiatu rik bozka eguner buruz !

Goberniaren aldekoak hortan azkar dira.

Erranen deizie aitzineko egunetan bezala : soldadogatik gizon gaztiak libratuko dutiela, edo soldadogoa sorlekhitik hullan egineraziko deiela. Gezurra hori, ez tie hortako eskurik batere; borogantchak agertu dira bai Mauleko bai Atharratzeko kantonadan, azken agorrilako bozkatik landan.


Erranen deizie : ezpaduzie haien aldialat botza emaiten, *soutien de famille* bezala ez direla ziren soldadok ezagutu rik izanen, ez familiak lagunturik. Gezurra hori ere; legia hor da, *cheheki erraiten diana zowin-zowin diren* kasu hortako soldadok eta familiak.

Mehatchu eginen die : zaharrer khentu-ko deiela edo ezteiela emanen erretretarik ez lagungoarik eta beste holako elhe greuthgarri franko. Ez sinhets, horik oro gezurrak beitira eta holako mehatchien egitiak berak ekhar zitzaie la hoien egilen kontre botzaren emaitera.





ERREJENT ETA LABORARI



EZIN bizian ziren, gisala, goure jaon errejentak. Uduri zaizeia ! Igaran 24 ourthe horietan errejenten paga ezta sei ehun eta hamabi (612) libera baizik goraturik izan, Klotz ministroa bera jakile. Houna zer zioan igaran ourthian, Setemeren 29^{ia}ⁿ Beauvraignes, la Somme departementuko herri batetan :

« De 1888 à 1908, les traitements des instituteurs ont été majorés de 612 francs environ par tête. »

Egunko errejentek arren ourthian 612 libera, edo hilabetian 51 libera, edo egunian 34 sos aitzinekoek beno haboro hounkitzen die. Bai... eta ezkie aski hortan gisala. Ziek eta nik errejenter gero eta haboro eman beharko dugu.

Igaran Martchouaren 6^{ia}ⁿ goberniak errejenten paga berrogei eta bost milioz emendatu du.

* * *

45 miliou horiek phartit ditzagula Frantzia-ko errejent eta errejentsa orotarar : badira ehun eta hogeia mila. Bakhotcharentako 350 libera jiten da ; gutienetik hori.

Beraz, hebentik aitzina, errejent batek haste has-tetik 15 ehun libera irabaziko du, edo 4 libera eta 2 sos egunian : 30 ourthetan, irabaziko du 18 ehun libera, edo 5 libera egunian : 38 ourthetan, irabaziko du 2 mila libera, edo 5 libera eta erdi egunian ; 45 our-thetan irabaziko du 25 ehun libera, edo egunian 7 libera 3 sosen gatik.

* * *

Errejent eta errejentsek ourthiaren erdia *bakantza* die. Haboroenetik ere, 180 egunez die eskola egiten, eta egunian 6 orenez : ourthe orotan arren mila-talauetan hogeitau orenez.

Hebentik aitzina beraz, eta orai danik, errejentek irabaziko die eskola *egunkal*, 20 ourthetan, *zortzi* libera : 30 hourtetan, *hamar* libera; 38 ourthetan, *hameka* libera; 45 ourthetan, *hamahirour* libera eta *hamabost* sos.

Jornale ederrak, ez deia hala !

Amiñi bat bai !!!

*
* *
*

Bena ezta hortan oro.

Errejent gehienak *sekretari* dira ber demboran : hortik, herriaren gradu, 50 lusetarik *sei*, *zortzi* ehun libera artinoko irabazia.

Arrountian, errejentsak edo errejent emaztiak dira neskatchouer galtza egiten, phuntu egiten erakaskiak : phakia, ehun, berrehun libera.

Haurrer liburu, kaier, beste chehekeia fornizaliak, errejentak dira : hortan ere badie beren irabazia.

Paga gobernamentutik-goure sosetarik, *phaga* herri-tik-goure sosetarik, *phaga* familietarik; arren goure sosetarik : alde orotarik *phaga* eta *phaga* errejentako, eta gero-ta ederrago.

Beha ziteie orai hounat, laborari maitiak.

Ikhous dezagun, nahi duzielarik, noulako den zien zorthia, errejenten zorthiaren erezian.

*
* *
*

Goberniak, erran dugu, errejenten paga 45^{milioz} emendatu du igaran Martchouaren 6^{ian}. Houna zier zioan hortan ganen, egun zounbait lehen, Baranthallaren 25^{ian}, *Pierre Leroy-Beaulieu*, deputatu aiphatiak; laborarien althe bethi agertu denak :

« Nahi duzie errejenten paga goratu. Eta noui galthatuko duzie hortako behar datekian sosa? *Laborariari, pharterik handiena.*

Bena ordian, laborariak Frantzian errejentak beno haboro irabazten du. Izan behar du, ezi ezta gizon bati sakolatik hartzen sosik beste bati emaiteko, noun ezten *beste hori* beno posizione ederragoan.

Eta haatik, ez; laborariak eztu hullanik ere errejentak bezan bat irabazten : eztu ere laborariak, hantik hurrun, errejentak bezan bizitze gochoua eramaiten...

Bata beste, laborariak eta errejentak zer die irabazten ourthekal?

Laborariak, mila libera; errejentak aldiz, hamazortzi ehun libera; arren, *zortzi ehun libera haboro*¹. Chifre horiek, *Compère-Morel*, deputatu gorri beno gorriago, gorbeltz denak emanik izan dira, orano berri Frantziaren gainti egin dian enkesta edo ikhertze batetik landa.

Hori hola, zer duzie egiten?

Laboraria beno hanitchez irusago dira errejentak. Eta ziek laborariari bere irabazi tchipitik hartu nahi duzie, errejenter beren paga handiaren emendatzeko.

Laboraria lanian ari da ourthiaren buru batetik bestiala, eñhetzen, akhitzen da, dembora gaistouak bere errekoltak gal-eraz ditzon bethi beldur handian : argia gabe jaikirik, berant badoua phausatzera : zer nahi sasouez ari da lanian; udan, ekhitoltzian, negian, aize hotzian : eskerniatzen da ourthian bederatzu

(1) Errejent eta errejentsa menaju batek aldiz 35 ehun libera

ehun mila liberarem, doidoia familiaren hazteko behar denaren, irabazteko.

Laborariaren khantian bada gizon bat, errejenta, haren sosetarik ederki phakaturik dena, dembora gaistouak arrankurarik batere emaiten ezteiona, itzalian dagoena udan, negian aldiz beropian, egunian sei, zazpi orenen lana baizik eztiana, eta orano sei hilabetez solamente, bere haurren eskolatzeko « *bourses* » delako lagungoua hounik ukheiten diana, 55 ourthetan erretreta bezala *hamabost ehun libera* hounkiko diana.

Eta gero zuk, goberniak, ourthe-rotan esker-naturik bizi den laborariari erraiten deiozu orai.

« Baduk hire aitzinian kargulant bat, hik beno dobliaz haboro irabazten diana, hire sosetarik largoki phakatzen dudana, dohañik alojaturik dena, egunian sei, zazpi orenez baizik lanian ari eztena, itzalian edo beropian, ourthiaren erdia *bakantza* diana, hire erretreta beno hirour, lauraldiz handiago erretreta bat ukhenen diana.

Hik, laboraria, doidoia bi buriak juntatzen dutuk, eta ez bethi orano, errejenta aldiz aisala bizi duk. Bena oro bat duk. Nik, goberniak, hire sakolatik sos haboro orano hartuko diat, errejenter emaiteko. »


Kasu emazie, hola aritzez, ogen egiten duzie errejenter, ezi, borogaturik haren khostuz aisala bizi direla, laborariak azken ekoz gaizki hartuko dutu. »

Hola mintzatu zen *Pierre Leroy-Beaulieu*, bena auherretan; gogonamentutiar deputatiek errejenten pagaren goratzeko beren botza eman zien.





« PAGA, PAGA, PAYSAA !! » — KARGULANTAK



BARGULANTEK chahu jaten gutie Frantzian. Diala 30 ourthe etzen *berrehun eta lauetan-hogei-ta hirour mila* baizik (283.000) egun aldiz badira *bederatzu ehun-ta-hamalaur mila* (914.000) edo *sei ehun eta hogei-ta-hameka mila* haboro (631.000).

Nourk phakatzen dutu enplegatu horiek oro? Guk; ezi gobernamentiak her emaiten dian sosa, goure sakolatik idokitzen du.

Diala 30 ourthe, emplegiatiak khostatzen ziren *hirour-ehun miliou* eskaz (298 millions).

Orai aldiz khostatzen zaizku *bederatzu ehun eta hirouretan-hogei miliou* (960 millions) edo *sei ehun eta hirouretan hogei-ta-bi miliou* haboro (662 millions).

Gobernamentuko gizounek kargulantak emendatu dutie beren adiskidentako botz bil-eratzeko, eta holaz buruzagi baratzeko.

Zer agitu da?... *Frantziako* gastien bugdetak ourthe oroz jauzi handi bat egin goiti. Houna chiffre zounbait, *Officiel* delako gobernamentuko kasdetan berian har-turik.

1871-ian Frantziaco gastiak heltzen ziren 2 milliart 367 milliouetarat.

1878-ian	heltzen ziren.	3	miliart	-etara.
1890-ian	—	3	miliart	141 miliou-tara.
1897-ian	—	3	—	523 —
1906-ian	—	3	—	709 —
1907-ian	—	3	—	828 —
1908-ian	—	3	—	920 —
1909-ian	—	4	—	15 —
1910-ian	—	4	—	182 —

Eta ezta askihor-Ezi *Klotz*, legarren ministro^zan zenak (judio-da) erran du, igaran ourthe^oko gastiek 166 miliouz aitzineko gastiak gaintituko zutiela.

Aorthenko budjetaz eniz mintzo, daigunekoaz gutiago. Eztira legardunak luzaz baratuko jakin gabe zerbait ere gizaz haboro eta haboro beharko diela phakatu.

Egiaz osoki egiaz mintzo girelako pretenziona badugu : horren probatzeko, jakile har ditzagun oraiko gobernamentuko gizounak berak hen sustengazaliak.

Houna zer dioien hortan gañen

1^o *Antonin Dubost*, zenaturen Presidentak : « *Il est trop clair que nous dépensons trop et que les charges du pays sont lourdes trop.* » — Sobera dispendio egiten dugu; legar sobera phaka-erazten. »

2^o *Cochery*, orano berrini ministro zenak : « *Aucun pays ne saurait résister longtemps à de pareilles augmentations de dépenses.* » — Frantziaren damia egiten dugu despendioak hola handitzez. »


Igaran aspaldian mintzo dira gastien aitzina ez goratziaz, eta halerik ere gastiak goratzen eta goratuko dutie, beraien houna gatik.

Elhe eder emanen deikie, sinhesten dutuguno. *Nouiz artino sinhetsiko dutugu?*





LABORANTCHAZ



I. — Olo hobena erruteko

JSEIU hanitch eginik izan dira jakiteko zouiñ den olo kastarik hoberena, arrautze haboroenik ukheiteko. Hortako behar da, dudarik gabe khasu egin olloaren adinari, ollaotegiari, olloer emanik zaien hazkurriari, haroari.

Arduran, ollo errulerik hoberena da, hobekienik ekhartzen dena. Nahi dianak arrautze hanitch, osagarri houneko olloak ukhen behar dutu. Olloen osagarria hobiago eta arrautze haboroago. Osagarriaren segurtatzeko biderik hoberenak dira : ollaotegien sano eta chahu etchekitzia, olloer janhari edo bazka houn emaitia, kartician ountsa jiten den kasta baten haitatzia.

Houna zer dion, iseiak egin dutian jaun batek : « Baditit orai *Orpington* deithu kastako olloak, kolorez holli, jitez handizale eta gizentzale, errule hobere-netarik ezagaturik direnak; haietarik berhez, badit Italiako kasta bat Leghorn deithia, kasta handi bate-tako ollar batekin khurutchatu beitut; azkenekoz badit hirourgerren tanda bat, oro goure herriko kasta zaharreko ollo. Lehen bi kasta horik aiphaturik dutuzu hoberenak direla errule bezala. Arren borogutu dit, ber adinian, ene herriko kasta zaharreko ollantek goizago lehen arrautziak eman dutiela, eta bestiak bezañ errule hounak direla. »

Hortarik ezagun da, kasta hobena dela herrian aspalditik houn-harturik eta kostumaturik dena : kondizionetan eziala sofrituko ez hotzaren, ez umitar-

zunaren, ez zikhinkeriaren eta berheziki zorrien, eretzetik.

Agitzen ahal da ollo hourak ezditian aski handi izan, haien nahi bezain khario saltzeko. Ordian, ezari behar da ber kastako ollarraren lekhutan, kasta handiago batetako, hala noula Brahma edo Cochinchinako kastako, ollar bat. Khurutchada haren ondotik errunik diratekien arrautzetarik sorthuko diren tchitchak, amak beno gothorrage eta larriago agituko dira. Bertan handituko dira eta haien phezia, hirour phartetarik batez amena beno handiago dateke.

Ororen burian houna zer ountsa ageri den, eginik izan diren iseiatarik : Ezta ollo kastarik beste bat beno errule hobiago denik. Ihourk baliaeraz dezala bere eskupian diana; ezpada kasta houra estakururik gabe, hartu behar dira haren hobetzeko bidiak. Noula hori? Eginez ollaotegiak gunerik beroenian, ountsa airestaturik, ekhi-jalkhigiari buruz, eta haietan chahutarzuna etchekiz. Nouiztarik nouiztara, latsun hourez, edo hobekiago *bouillie bordelaise* deithu hourez, ihistatu behar dira murriak, pharetiak, hagak; artetarik houn da sofre erra-eraztia zorrien gal-erazteko. Arrahenki, usu usia, behar du ollo-gorotzak khentu, han beita hanitch eritarzunen azia. Ollaotegitik hullan ezari behar da hariña athe bat. Azkenekoz olloer eman behar zaie bihi jatera, phastoa beno hobe die.

Nahi bada arrautzerik neguko, eman olloer *savrazin* delako bihi, olho beltz, ogi bihi, tchipietarik, latsun hourian, azikako bihia bezala, hantucherik. Gisa horrez olloek ountsa phakatuko dutie haien hazteko egin diratekian gastiak.

Bihia nekez edireiten dienek ahal die emaiten aldika phasto eta bihi edo berere phasto berbera. Houna phasto hoberenak eta ehienik adelatzen ezaguturik direnak neguko, hamar olloentako : 1^o garrota egosi 1066 grama, aragi chehekatu 65 grama, zahi 50 grama,

horik oro algarrekin ohaturik; hoiekin emaiten zaie, haborokin, 50 edo 60 grama bihi eta baratzeke belhar amiñi bat; — edo orano, 2^o lur-sagar egosi kilo bat, odol egosi hachaturik 230 grama, horik oro algarrekin nahasirik gorago erran bezala, baratseke belhar amiñi batekin eta berrogei eta hamar edo hirouretan hoge bat grama bihiekin.

Aldikatzen ahal dira phasto eta bihiak gisa hountara : Goizan eta arratsan eman deite phastoa, heñ bat bero, eguerditan aldiz, bihia berbera; houra ere aldikatuz, egun batez bihi muta bat, biharamenian beste bat, eta hola.

Urhentzian, houn da jakineraz dezagun, ourtheko olloak direla hoberenak eta segurrenak, negian erruteko. Bi, hirour ourthetako olloak larrazkenian errutetik baratzen dira.

II. — Mestura phastatik ogia

Mestura ophila, mestura therizan eginik, hori da hori janhari houn eta sanoa, hiri hoietan saldurik diren ogi hanitch beno azkarragoa. Bena zahartziarekin idortzen da, zuntzurra kharrakatzen du, gogortzen da, ezta hañ gocho jateko.

Amerikako gune zounbaitetan egiten da artho irinarekin ogi suerte bat hanitch houna; *Louis XVIII gerrenak*, Frantziako erregiak, maite zian eta usu galthatzen zian hortarik. Houna noula egiten den .

Lehenik herakazten da houra, eta gatz behar dena ezarten zaio; heraki delarik, ourthoukitzen zaio, guti aldian, artho irin ountsa chouri, eta arround nahasten hourarekin, hirour oren laurdenen heña. Ordian moullia hori egosirik da. Sutin khen eta loditzen da, ahal oroz artho irin haboro ezariz, gero thapatzen da eta hauts beroaren gañen ezarten da bertza. Azkenik ezari irina heñ bat egosi denian, moullia hutsten da orhiaren egiteko askala, eta han ountsa nahasten,

zourezko chalhe batekin, ogiaren ohatzeko zerbutchatzen den houraren berotarzu naren heñiala jarri artino.

Ordian emaiten zaio altchatura-azi, lodiegi ezten bat, eta nahasten die moullia harekin, emendatzen delarik ogi irinez edo zekale irinez, ogiaren egiteko orhiaren heñiala loditu artino. Phasto hori ohatzen da, utzulikatzen askaren buru batetik bestiala, askatik deslותרazi artino. Gero, irin aphur bat achaliala ourthoukitzen zaio, thapatzen da eta labia arrount phitz eta beroerazten da, phastoa bertan altchatzen beita.

Labia beroerazten da ogiaren beno haborochiago; inkhatzak khentu eta zola chahatu ondoan, labia zeratzen da. Gero irin aphur bat gaña iraur eta, phasta ohatutik egiten dira ogi zathiak eta bederaka phalan gañen ezarten, labian sartzen eta labia zerratzen. Ogia kasik heñiala errerik denian, utzultzen da eta uzten labian ardurako ogia beno haborochiago.

III. — Ehungerrena.

Houn da ihourk jakin dezan, zer den, hiltze baten okasionian, goberniari legiak emaiten deion phartia. Pharte hori handiago edo tchipiago da, askazgoaren arau eta utzitiaren arau. Askazgoa hullanago eta goberniari joaiten zaiona tchipiago; utzirik den hountarzun handiago eta, ber gradoan, goberniaren phartia handiago.

Houna chifriak : houna zer jiten zaion goberniari, erran nahi da, zer ehungerren phakatu behar den, orano berhez dira, haborokin notarier jiten zaiena :

1^o *Aita-amen eta haurren artian* : bi mila liberaz peko hountarzun batentako, phakatu behar da ehunaren hoge sos, (1 0/0); bi mila liberatarik eta hamar milatara, ehunaren hoge eta hamar sos, (1 50 0/0); hamar mila liberatarik eta berrogie eta hamar mila-

0- 2000 1 %
2000 10.000 15 %
50.000 2 %

tara, ehunaren berrogei sos, (2 0/0); hantik ehun milatara ehunaren berrogei eta hamar sos, (2.50 0/0); hantik berrehun eta berrogei eta hamar milatara, ehunaren hirour libera, (3 0/0); eta hola, ber gradoan utzite handiagoentako.

2^o *Aita-amen eta arra-haurren artian* : bi mila liberaz peko hountarzun batentako, ehunaren hogei eta hamar sos, (1.50 0/0); hantik hamar milatara, berrogei sos, ehunarentako, (2 0/0); hantik berrogei eta hamar milatara, berrogei eta hamar sos, (2.50 0/0); hantik ehun milatara, hirour libera eta erdi, (3.50 0/0); eta ber gisan aitzina.

3^o *Aita-amen eta beren haurren arra-haurren artian* : bi mila liberaz peko hountarzun batentako, ehunaren berrogei sos, (2 0/0); hantik hamar milatara, berrogei eta hamar sos, (2.50 0/0); hantik berrogei eta hamar milatara, hirour libera, (3.0 0/0); hantik ehun milatara, hirour libera eta erdi (3.50 0/0); hantik berrehun eta berrogei eta hamar milatara, laur libera, (4 0/0); etc...

4^o *Senhar emazten artian* : bi mila liberaz petik, ehunaren laur libera, (4 0/0); hantik hamar mila liberatara, ehunaren laur libera eta hamabost sos, (4.75 0/0); hantik berrogei eta hamar milatara, ehunaren bost libera eta erdi, (5.50 0/0); hantik ehun milatara, sei libera eta bost sos, (6.25 0/0); hantik berrehun eta berrogei eta hamar milatara, zazpi libera, (7 0/0); etc.

5^o *Aurhiden artian* : bi mila liberaz petik, ehunaren hamar libera, (10 0/0); hantik hamar mila liberatara, hamar libera eta hamabost sos, (10.75 0/0); hantik berrogei eta hamar mila liberatara, hameka libera eta erdi, (11.50 0/0); hantik ehun milatara, hamabi libera eta erdi sos, (12.25 0/0); hantik berrehun eta berrogei eta hamar milatara, hamahirour libera, (13 0/0); etc.

230000

6^o *Osaba edo tanta illoben artian* : bi mila liberaz petik, ehunaren hamabi libera, (12 0/0); hantik hamar milatara, hamahirour libera, (13 0/0); hantik berrogei eta hamar milatara, hamalaur libera, (14 0/0); hantik ehun milatara, hamabost libera, (15 0/0); hantik, berrehun eta berrogei eta hamar milatara, hamasei libera, (16 0/0); etc.

7^o *Osaba edo tanta eta arra-illoben artian, eta, hala hala, kosi, kuzuñen artian* ; bi mila liberaz petik, ehunaren hamabost libera, (15 0/0); hantik hamar mila liberatara, hamasei libera, (16 0/0); hantik berrogei eta hamar milatara, hamazazpi libera, (17 0/0); hantik ehun milatara, hamazortzi libera, (18 0/0); hantik berrehun eta berrogei eta hamar milatara, hemeretzu libera, (19 0/0); etc...

8^o *Laurgerren belhañetik aitzina eta askazi eztiren persounen artian* : bi mila liberaz petik, ehunaren hamazortzi libera, (18 0/0); hantik hamar mila liberatara, hemeretzu libera, (19 0/0); hantik berrogei eta hamar milatara, hogeï libera, (20 0/0); hantik ehun milatara hogeï eta bat libera, (21 0/0); hantik berrehun eta berrogei eta hamar milatara, hogeï eta bi libera, (22 0/0); etc.

Ordeñurik egin gabe hiltzen direnen hountarzunak joaiten dira oso osoak, gobernialat, hilak ezpalinbadu, gutiena laurgerren belhañian askazirik.

Goragoko chifre hoietarik ageri da, legiak primantza houna egiten deiola goberniari, aurhiden artetik hasirik, phartiturik diren utzitetan. Eztira hullantzen ere, beste erresoumetan, chifre hoietara ehungerrenaren zergak.

Zerga horik bestiak bezala, botzaren noula nahi emaitiaren ondoramenak.

Goberniak behar dutu bildu nountipaitik *bost miliart ourthian* bere gastientako, *hirour miliart* empedaroriaren demboran beno *haboro ourthekal*.

Hartakoz, bere adiskider botz emailiak ountsa biskar-ratzen dutu.

Nouiz atch ! erranen die? Haren kargulanteriarri eta haren aldeko botz galthazaler, behin bethikoz behatzetik begira ditian, errelijioneduner baizik ez jarraikitzeke, ordu lizate.

ISTORIA ETA ERASI

BI abokatu, bi gizonek beharturik, abiatzen ziren beren pheredikien egitera. Bata hasten da eta mintzo da haiñ ederki, haiñ beroki, haiñ azkarki, noun ezpeitzen ederkiago, ez berokiago, ez azkarkiago mintzatuko, jente zounbaiti bizitzia salbatu behar izan bazukian. Aldiz prozesaren sujeta phutzu bat zen. Tribunaleko presidentak erraiten deio : « Eztizu gaizak balio hainbeste iseiu egin dezazu zoure gizonaren zuzenen defendatzeko; ezi hour inkaru batez duzu kestione. » — « Pharka, jaun Presidenta, dio abokatiak, egia duzu, phutzu bat dela, goure prozesaren sujeta, bena phutzu houra hanitch baliouisa duzu, zeren ezi, goure bi prozeskariak ardou saltzale dututzu. »

— Ostaler bati gizon batek emaiten deio hogei soseko falsu bat edan dian ardouaren phakatzeko. Ostalerrak : « Emadazu beste phezeta bat, hau falsa duzu. » — « Hartakoz ere eman deizut, zuk eni edane-razi ardoua ere halako zuzun. »

— Bethi bedeziaren ondoan da Mouchoulin, gaiza esdeusbatentako behartzen du Egun batez joaiten zaio etchera eta erraiten : « Jauna zinez marhanta nuzu, sudurra uthurri bat bezala dit. Zer hartu behar dut? » — « Sudurreko boukanas bat, » dio bedeziak.

— Londreseko bedezi batek bazutian bi mezu igorteko : pilula boeita bat eri bati eta sei olo bizirik bere adiskide bati. Mania emaiten deio mithilari biak berhala egin ditzan. Malerouski mithila trounpatu zen eta eman zeitzen meziak kontriala, eriarri eta nausiaren adiskidiari. Phenatzen ehi da noula eria zentzordatu zen ukheitez sei olo biziekin bedeziaren izkiribu hau : « Hoietarik biga oren erdi oroz irets itzatu. »

— Mariana eihera-zaintza, jauregian da, amiraturik hanko madamaren diamanter so. « Hanitch khario khosta zaitzu, ezteia hala, madama ! » — « Bai hanitch, Mariana. » — « Eta zer irabazi emaiten deizie? » — « Zer? Eta emazettoa deusere; negu oroz behar dit phakatu hoi chahatzia eta arramontatzia. » — « Zaude, madama, ordian ezdututzu eniak uduri; nik biga baizik ezditit, ene aitak utzirik eta irabazi handia ekharten ditadaziek. » — « Sogizu, sogizu, nourk erranen zian, Mariana, eiherazaintsak diamantak bazutiala, eta noulako tuzu, noun tuzu? » — « Oi, madama, nahi bazira jin ikhoustera, tziauri, eiheran ditit; bi eihera-harriak dutuzu. »

— Merkhatu egun batez, dakizien bezalako etchebotura tchar batetan jinik, azti suerte batek jente tutuch eli-bati emaiten zutian sendagallu batzu, alegia minak oro sendotzen zutienak. Letera eli-bat ountsa kachetaturik eskentzen zutian hari behatu nahi ziren laborarier eta erraiten : « Houna paper bat ezinago balioua, mandoen ostikatekarik begiratuko beitzutie. Eros ezazie, bena eztezaziela egunaz deska-

cheta, ekhiaren argiak indarra galeraz beileiko; gaiaz zabal ezazie eta horren erranaren arabera aritez, ountsa jalkhiko ziradie. »

Ulhuna gabe, aztiskotak lekhia hustu zian, paper andana bat saldurik. Aldiz laborari tonto haiek etchera ondoan, suthondoko argiala paperttoa zabal eta han irakourri zien : « Egon zite bethi mandoaren gibelaldiari sobera hullantu gabe. Haren ostikaten beldur ukheitekorik eztukezie; horra egia. »

— Félich eta kadet mithil dira, aphur bat burutik simple den nausi batekin. Houna behin zer elhe khurutchatu ziren haien artian. Nausiak Félichi : — « Horhiza to, Félich? » — « Bai Jauna. » — « Zer ari hiz? » — « Deusere Jauna; » — « Eta hi Kadet, horhiza hi ere? » — « Bai jauna. » — « Zer ari hiz? » — « Félichen laguntzen jauna. » Nausiak ordian : « Arren urhentu dukezienian, jinen ziradie eni houñetakoek ekhartera. »

— Beste gune baketan baziren Bettan mithil tchippia, aphur bat burutik lamphuts eta bi mithil handi Joanès eta Aillande. Nausiak badu mithil handietarik bataren beharra. « Errak Bettan, noun da Joanès? » — « Aillanderekin, jauna. » — « Eta Aillande noun da? » — « Joanèsekin, jauna. » — « Debru mothiko hustutcha, noun dira errak, Joanès eta Aillande? » — « Biak algarrekin, jauna. »

— Bettan horri, nourbaitek galthegin zeion, orano zazpi ourthiak baizik etzutialarik : « Errak eta nahi hiza apheztu? » — « E-ez. » — « Errejentu? » — « E-ez. » — « Laboraritu. » — « E-ez. » — « Ofizialetu? » — « E-ez. » — « Zer arren? » — « Jente. »

— Mauleko haur bat bazen mihi zabal eta *k* erran behar zenian bethi *t* erraiten beitzian. Egun batez,

kanpoko nourbaitek galthatzen deio : « Errak eta baduzieia mahatsik? » — « Ba... ai. » — « Egiten duzieia ardou hanitch? » — « Ba... ai. » — « Eta noun ezarten duzie ardoua? » — « Barritan. » — « Zer diok, barritan? » — Haurrak ordian khechaturik : « Barritan, bai, edo ezpazira tountent, thatan. »

— Angles hoiek sabel gaitzak dutie. Bat joan zen behin Pariseko arrossilla saltzale baten salgiala eta galthatzen deio zer den jateko. — « Bena, dio saltzaliak, hor ikhouston dutuzubak oro. » — « Oi besterik ere jan niozu. » — « Debria, heben bistan direnak oro jaten balinbatutzu, badukezu aski. » — « Arren janen ditit. » — « Horik oro? eztitezu. » — « Ezdaitekiala, dio Anglesak, jokhatzen deizut bi sos, oro jaten tudala; baduzia Bordeleko ardouik? » — « Bai eta hobenetarik. » — « Arren bai, bi sos jokhatzen deizut, oro jaten tudala. » — « Dugun ikhous, dio bestiak. » — « Eta Anglesa hasten da; jan ondoan bere asia, nounbait berrogei liberaren arrossilla eta hounttokeria, bai ere hutstu boutilla ardoua, baratzen da. Erraiten du. — « Orai ukho nuzu; galdu dit, orizu irabazi deiztadatzun bi sosak, eta badoa kanporat, beste arrankurarik gabe. »

— Hiri hoietako etcheke-andere bati, uduritzen zaion, uda beroan, erosten zian eznia geroago eta mehiago zela, hots batheiatucherik izan behar ziala. Behin plañitzen zaio saltzaliari : « Oi, madama, bero handi hoietan goure behiek usatu beno hanitch haboro edaten beitie; hortarik horra duzu, eznia mehiago emaiten beitie. »

— Phetiri laborariak jesan zian bost ehun liberako bat Pette bere aizoari. Phakatzeko muga heltu zenian, etzian zertaz phaka eta nahi zen zerbait gisaz ezkapi bere obligazioren bethatziari. Beitzen hirian, erre-

lijionerik gabek abokatu bat, haren gana badoa, abis galthatzera. Abokatiak erraiten deio : « Egin dozia billetik Petteri? » — « Ez jauna. » — « Arren igor ezazu aize ephaitera. » Phetiri bazoan hortan, nouiz eta abokatiak baratzen beitu erraiten deiolarik : « Errazu hooou Phetiri, eztuzu hola ene etcherik joaitia. Behar deitadazut eman kontsulta saria. » — « Bai hoi dizugu, egin deizuta billetik? » — « Ez. » — « Arren ezteizut zouri ere deusere zor, zoaza aize ephaitera. »

— Donaphaleuko tribunalian, lehentze agitzen da Santa Graztar ematze bat jakile bezala. Estonaturik da ikhouston abokatiak eta jujiak kota beltz luze elibatekin eta galthatzen du khantian agitzen zaion gizon bati zertako jaun horik emazten arropak udu-riko elibat ezarten dutien. Bestiak erri batekin : « Zeren eta elhe hanitch eta haietarik haboroak aoherretan erran behar beitutie. »

— Prusiako azken gerlaren ondotik Berlin-en pressouer agitu zen, Ganich Garaztarra. Kharrou handi bat zelarik, behin lerra eta erori zen, manechian diroiën bezala, iphourdin gana. Prusien ofizier batek erriz erraiten deio. « Berlin-eko lurrak badizu bere urgullia, eztizu aisa egarten Prusiako ezten jenterik. » Ganichek : — « Bere urgullia etziozu hanitch baliatu, ezi, nahi ala ez Uskaldun soldado baten gibeladiari pot eman behar izan ziozu. »





MAIATZA edo EPHAILA
Eg.luzatzen dira oren eta laurdenez




- ☉ l. l., 3ⁿ, goizeko 6^{or} eta 38^m.
- ☽ a. o., 9ⁿ, arratseko 9^{or} eta 40^m.
- ☾ a. l., 16ⁿ, arratseko 10^{or} eta 21^m.
- a. b., 25ⁿ, goizeko 2^{or} eta 44^m.

ARRAMAIATZA edo BAGILA
Eg.luz. dira oren eta 1/4, 22^a drano.



- ☉ l. l., 1ⁿ, arrastiriko 2^{or} eta 12^m.
- ☽ a. o., 8ⁿ, goizeko 5^{or} eta 28^m.
- ☾ a. l., 15ⁿ, arrastiriko 2^{or} eta 29^m.
- a. b., 23ⁿ, arrastiriko 3^{or} eta 43^m.
- ☉ l. l., 30ⁿ, arratseko 7^{or} eta 34^m.



- | | | |
|----|----------------------|--------------------------------|
| 1 | Ostirale. | J. Filipe et Jak. ap. |
| 2 | Neskanegun. | s. Atanasi. |
| 3 | Igante. 3. | <i>D^a Khurutze.</i> |
| 4 | Astelehen. | <i>s^a Monika.</i> |
| 5 | Asteharte. | s. Pio V. |
| 6 | Astizken. | J. Johane Eb. B. L. |
| 7 | Ostegun. | s. Stanizlas. |
| 8 | Ostirale. | J. Migel. agert. |
| 9 | Neskanegun. | s. Gregori, Na. |
| 10 | Igante. 4. | s. <i>Antonein.</i> |
| 11 | Astelehen. | s. Oriens, |
| 12 | Asteharte. | s. Nere et Akil. |
| 13 | Astizken. | s. Jenio. |
| 14 | Ostegun. | s. Johane Sala. |
| 15 | Ostirale. | s. Eutrope. |
| 16 | Neskanegun. | s. Johane Nep. |
| 17 | Igante. 5. | s. <i>Paskal.</i> |
| 18 | Astel <i>Errog.</i> | s. Venanzio. |
| 19 | Asteh. <i>Errog.</i> | s. Pudenziena. |
| 20 | Astig. <i>Errog.</i> | s. Bernarden. |
| 21 | Ostegun. | SALBATORE |
| 22 | Ostirale. | <i>s^a Kiteria.</i> |
| 23 | Neskanegun. | s. Ubalde. |
| 24 | Igante. | A. B. Laguntzaha. |
| 25 | Astelehen. | s. Gregori VII |
| 26 | Asteharte. | s. Filipe Neri |
| 27 | Astizken. | s. M. Mad. P. |
| 28 | Ostegun. | s. Agosti. |
| 29 | Ostirale. | s. Garzia. |
| 30 | Neskanegun. | s. Felis. |
| 31 | Igante. | PHENTEKOSTE. |

- | | | |
|----|-------------------------|---------------------------------|
| 1 | Astelehen. | s. <i>Kler.</i> |
| 2 | Asteharte. | s. Poteñ. |
| 3 | Astiz. <i>IV Th. B.</i> | <i>s^a Kloutilda.</i> |
| 4 | Ostegun. | s. Franzes Kar. |
| 5 | Ost. <i>IV Th. B.</i> | s. Bonifazi. |
| 6 | Nesk. <i>IV Th. B.</i> | s. Norbert. |
| 7 | Igante. 1. | TRINITATE. |
| 8 | Astelehen. | s. Medart. |
| 9 | Asteharte. | <i>s^a Prima.</i> |
| 10 | Astizken. | <i>s^a Margarita.</i> |
| 11 | Ostegun. | BESTABERRI. |
| 12 | Ostirale. | J. BARNABE, a. |
| 13 | Neskanegun. | s. Antoni Pad. |
| 14 | Igante. 2. | s. <i>Basila.</i> |
| 15 | Astelehen. | <i>s^a Jermina.</i> |
| 16 | Asteharte. | s. Frantzes R. |
| 17 | Astizken. | s. Avit. |
| 18 | Ostegun. | <i>s^a Marina.</i> |
| 19 | Ostirale. | J. BIHOTZ SAK. |
| 20 | Neskanegun. | <i>s^a Juliena F.</i> |
| 21 | Igante. 3. | s. <i>Louis Gonz.</i> |
| 22 | Astelehen. | s. Paolein. |
| 23 | Asteharte. | s. Eusebio. |
| 24 | Astizken. | J. JOHANE BA. |
| 25 | Ostegun. | <i>s^a Eurosia.</i> |
| 26 | Ostirale. | J. Johane eta Paule. |
| 27 | Neskanegun. | s. Prosper. |
| 28 | Igante. 4. | s. <i>Irene.</i> |
| 29 | Astelehen. | J. Petiri eta P. |
| 30 | Asteharte. | J. Paoler. orh. |



UZTAILA

Egunak llaburtzen dira oren 1ez.




- ☉ a. o., 7ⁿ, arrastiriko 2^{or} eta 9^m.
 ☽ a. l., 15ⁿ, goizeko 7^{or} eta 41^m.
 ● a. b., 23ⁿ, goizeko 2^{or} eta 24^m.
 ☽ l. l., 30ⁿ, gaiherditan.

AGORRILA

Egunak llaburtzen dira oren 1 1/2



- ☉ a. o., 6ⁿ, gaiherdi eta 50^m.
 ☽ a. l., 14ⁿ, goizeko oren eta 5^m.
 ● a. b., 21ⁿ, gaiherdi eta 30^m.
 ☽ l. l., 28ⁿ, goizeko 5^{or} eta 2^m.



1 Astizken.	s. Tierri.	1 Neskanegun.	J. Petiri katiet.
2 Ostegun.	A. B. Bisitaz.	2 Igante. 9.	s. Ezteb. err.
3 Ostirale.	s. Gillen.	3 Astelehen.	J Ezteb. edir.
4 Neskanegun.	s. Léon II.	4 Asteharte.	s. Dominiche.
5 Igante. 5.	J. K. Odol Prez.	5 Astizken.	A. B. Elhur.
6 Astelehen.	s. Trankile.	6 Ostegun.	J. K. Transfig.
7 Asteharte.	s. Marzial.	7 Ostirale	s. Kajetan.
8 Astizken.	s ^a Beronika.	8 Neskanegun.	s. Ziriaka.
9 Ostegun.	s ^a Elisabet, P.	9 Igante. 10.	s. Jermein.
10 Ostirale.	7 anaie mart.	10 Astelehen.	s. Laorentz.
11 Neskanegun.	s. Pio.	11 Asteharte.	s. Tiburze.
12 Igante. 6.	J. Johane Galbart.	12 Astizken.	s ^a Klara.
13 Astelehen.	s. Anaklet.	13 Ostegun.	s ^a Radegonda.
14 Asteharte.	s. Bonaventura	14 Ostirale.	s. Eusebio.
15 Astizken.	s. Henrik.	15 Neskanegun.	A D M. ZELIALAT.
16 Ostegun.	A. B. KARMEL.	16 Igante. 11.	s. Joakimo.
17 Ostirale.	s. Aletsis.	17 Astelehen.	s ^a Emilia.
18 Neskanegun.	s. Kamille.	18 Asteharte.	s ^a Elena.
19 Igante. 7.	s. Bizente P.	19 Astizken.	s ^a Filomena.
20 Astelehen.	s. Filibert.	20 Ostegun.	s. Bernat.
21 Asteharte.	s ^a Pratseda.	21 Ostirale.	s. Julien Lesk.
22 Astizken.	s ^a M. Madalen.	22 Neskanegun.	s. Ipolita.
23 Ostegun.	s. Apolinari.	23 Igante. 12.	A. B. Bibotz s.
24 Ostirale.	s ^a Kristina.	24 Astelehen.	J. BARTOL., ap.
25 Neskanegun.	J. JAKOBE, ap.	25 Asteharte.	s. l ouis, err.
26 Igante. 8.	s ^a Agna.	26 Astizken.	s. Zefri.
27 Astelehen.	s. Galatori.	27 Ostegun.	s. Jusuf Kall.
28 Asteharte.	s. Nazari eta Zelze.	28 Ostirale.	s. Agosti.
29 Astizken.	s ^a Marta.	29 Neskanegun.	J Joh. Lephoe.
30 Ostegun.	s. Abdon.	30 Igante. 13.	s ^a Rosa Lima.
31 Ostirale.	s. Inazio Loiola	31 Astelehen.	s. Remoun.



BURUILA edo SETEMER

Eg. llab. dira oren 1 eta 3/4 ez.




- ⊕ a. o., 4ⁿ, arrastiriko 2^{or} eta 11^m.
- ⊕ a. l., 12ⁿ, arratseko 6^{or}.
- a. b., 19ⁿ, arratseko 9^{or} eta 43^m.
- ⊕ l. l., 26ⁿ, eguardi eta 12^m.

URRIETA

Eg. llaburtzen dira oren 1 eta erdiz.



- ⊕ a. o., 4ⁿ goiseko 6^{or} eta 8^m.
- ⊕ a. l., 12ⁿ, goizeko 9^{or} eta 42^m.
- a. b., 19ⁿ, goizeko 6^{or} eta 43^m.
- ⊕ l. l., 25ⁿ, arratseko 10 eta 53^m.



- 1 Asteharte. s. Jiles.
- 2 Astizken. D. Justi.
- 3 Ostegun. s. Lizier.
- 4 Ostirale. s^aFrantzesa Ch.
- 5 Neskanegun. s. Laorenz J.
- 6 **Igante.** 14. s. *Onesiforo*.
- 7 Astelehen. s. Zebero.
- 8 Asteharte. A. B. SORTZIA.
- 9 Astizken. s. Omer.
- 10 Ostegun. s. Nikolas.
- 11 Ostirale. s. Iazinte.
- 12 Neskanegun. s. Gi.
- 13 **Igante.** 15. A. B. *Izen Si^a*
- 14 Astelehen. D^{na} Khurutze.
- 15 Asteharte. s. Nikomede.
- 16 Astizk. *IV Th.* s. Ziprieñ.
- 17 Ostegun. s. Frantz zaor.
- 18 Ostir. *IV Th.* s. Jusef Kup.
- 19 Nesk. *IV Th.* s. Janvier.
- 20 **Igante.** 16. A. B. *Dolor*.
- 21 Astelehen. J. MATHIU, Eb.
- 22 Asteharte. A. Maor.
- 23 Astizken. s^a Thekla.
- 24 Ostegun. A B. Librazalia
- 25 Ostirale. s. Aostinde.
- 26 Neskanegun. s. Tomas Vill.
- 27 **Igante.** 17. s. Kosma eta Dam.
- 28 Astelehen. s. *Faoste*.
- 29 Asteharte. J. MIGEL, ark
- 30 Astizken. s. Jeronimo.

- 1 Ostegun. s. Remi.
- 2 Ostirale. Ainguru beg.
- 3 Neskanegun. s. Binzeslaz.
- 4 **Igante.** 18. ARRUSARIOA.
- 5 Astelehen. s. Frantzes A.
- 6 Asteharte. s. Bruno.
- 7 Astizken. s^a Fide.
- 8 Ostegun. s^a Brijita.
- 9 Ostirale. s. Denis.
- 10 Neskanegun. s. Frantzes B.
- 11 **Igante.** 19. A. B. *Amaraz-*
- 12 Astelehen. s^a Daonina.
- 13 Asteharte. s. Edoart.
- 14 Astizken. s. Kalista.
- 15 Ostegun. s. Teresa.
- 16 Ostirale. s. Beltran.
- 17 Neskanegun. s^a Edvije.
- 18 **Igante.** 20. s. LUK Ebanj.
- 19 Astelehen. s. Grat, Olor.
- 20 Asteharte. s. Johane K.
- 21 Astizken. s^a Ursula.
- 22 Ostegun. s. Petiri, Alk.
- 23 Ostirale. s. Leotade.
- 24 Neskanegun. s. Rafael, ark.
- 25 **Igante.** 21. A. B. *Patron*.
- 26 Astelehen. s. Evarista.
- 27 Asteharte. s. Fronton.
- 28 Astizken. J. SIMOUN, ap.
- 29 Ostegun. s^a Eusebia.
- 30 Ostirale. s. Kazien.
- 31 Neskanegun. s. Zirizio.



AZAROA edo GOROTZILA

Egunak llaburtzen dira orenez.




- ⓐ a. o., 2ⁿ, gaiherdi menian.
 ⓑ a. l. 10ⁿ, arratseko 11^{or} eta 46^m.
 ⓒ a. b., 17ⁿ, arrastiriko 4^{or} eta 11^m.
 ⓓ l. l., 24ⁿ, arrastiriko or. eta 48^m.

ABENTIA edo NEGILA

Eg. llaburtzen dira 27 min, 22^{no}.

- ⓐ a. o., 2ⁿ, arratseko 6^{or} eterditan
 ⓑ a. l., 10ⁿ, goizeko 11^{or} eta 41^m.
 ⓒ a. b., 17ⁿ, goizeko 2^{or} eta 44^m.
 ⓓ l. l., 24ⁿ, goizeko 8^{or} eta 34^m.



1	Igante. 22.	DONISANTORE.
2	Astelehen.	<i>Purg. Arimak.</i>
3	Asteharte.	s. Zebero.
4	Astizken.	s. Charles Bor.
5	Ostegun.	s. Zakaria.
6	Ostirale.	s. Léonart.
7	Neskanegun.	s. Florent.
8	Igante. 23.	<i>Errelikia Sak.</i>
9	Astelehen.	s. Teodoro.
10	Asteharte.	s. Andreu Av.
11	Astizken.	J. MARTINE.
12	Ostegun.	s. Marti.
13	Ostirale.	s. Stanizlaz K.
14	Neskanegun.	s. Didazi.
15	Igante. 24.	ELIZEN SAKR
16	Astelehen.	s. Edmon.
17	Asteharte.	s. Gregori, Taum.
18	Astizken.	s. Odon.
19	Ostegun.	s ^a Elisabet Ong
20	Ostirale.	s. Felis Valesi.
21	Neskanegun.	A. B. <i>Eskentzia.</i>
22	Igante. 25.	s ^a <i>Zezila.</i>
23	Astelehen.	s. Klement.
24	Asteharte.	J. Johane Kh
25	Astizken.	s ^a Katalina.
26	Ostegun.	s. Konrad.
27	Ostirale.	s. Virjilo.
28	Neskanegun.	s. Maorino.
29	Igante.	<i>Abentuko 1^a.</i>
30	Astelehen.	J. ANDREU, Ap.

1	Asteharte.	s. Eloe.
2	Astizken.	s ^a Bibiana.
3	Ostegun.	s. Frantz. Zab.
4	Ostirale.	s ^a Barbara.
5	Neskanegun.	s. Sabas.
6	Igante.	<i>Abentuko 2^a.</i>
7	Astelehen.	s. Ambrosi.
8	Asteharte.	A. B. KONZEBZ.
9	Astizken.	s. Jeronze.
10	Ostegun.	s ^a Eulalia.
11	Ostirale.	s. Daniel.
12	Neskanegun.	s. Melkiade.
13	Igante.	<i>Abentuko 3^a</i>
14	Astelehen.	s. Arzene.
15	Asteharte.	s. Mismein.
16	Astiz. <i>IV Th.</i>	s ^a Adelaida.
17	Ostegun.	s. Gaziñ.
18	Ostir. <i>IV Th.</i>	s. Urbeñ.
19	Nesk. <i>IV Th.</i>	s. Liberat.
20	Igante.	<i>Abentuko 4^a</i>
21	Astelehen.	s. TOMAS, Ap.
22	Asteharte.	s. Flavien.
23	Astizker.	s. Onorat.
24	Ostegun.	s ^a Delfina.
25	Ostirale.	EGUBERRI.
26	Neskanegun.	J. EZTEBE, m.
27	Igante.	J. Jo ^a ane, Eb.
28	Astelehen.	Haor Inozent.
29	Asteharte.	s. Tomas, K.
30	Astizken.	s. Manzuet.
31	Ostegun.	s. Silbestre.



OURTHEKO HAROAK :

BEDATSIA hasten da martchoko	20 ^{an} .
UDA hasten da arramaiatzeko	21 ^{an} .
LARRAZKENA hasten da buruilako	23 ^{an} .
NEGIA hasten da abentuko	22 ^{an} .




MERKHATIAK ETA FEIRAK EDO BAKHIAK

MAOLEN : **m.**, asteharte oroz; **f.**, buruila 6ⁿ; abentu 10^{ik} landanko astehartian. — ATHARRATZEN : **m.**, astelehenez, amousetik; **f.**, Phentekoste biharamenian *eta* Donisantore ondoko astelehenian. — DONA JOANE GARAZIN : **m.**, asteleh. amous.; **f.**, Bazko *eta* Phentekoste ondoko astehartian. — DONA PALEUN : **m.**, ostir., amoust.; **f.**, Bazko ondoko ostegunian, *eta* abentuko 26ⁿ. — GARRUZEN : **m.**, ostir. amoust.; **f.**, agorrila 1ⁿ *eta* azaroko lehen astizkenian. — IRISARIN : **m.**, neskaneg., amoust., **f.**, baranthail. 3ⁿ *eta* aphiril. 15ⁿ. — AHAZPARNEN : **m.**, asteh., amoust.; **f.**, Bazko ondoko astizk. — IZOURAN : **m.**, asteh., amoust. — NAVARENKOSEN : **m.**, astizk.; **f.**, Erramu aitzineko astizkⁿ, *eta* abentu 8ⁿ. — ORTHEZEN : **m.**, asteh.; **f.**, martchoko *eta* urrietako lehen astehⁿ. — OOLORUN : **m.**, ostir. *eta* asteh.; **f.**, maiatz. 1ⁿ; *eta* buruila 8ⁿ, hirour eg. — PAOBEN : **m.**, astel. *eta* osteg., **f.**, Gorozum. lehen astelehⁿ, *eta* Jaondona Martinez, 8 eg. — SALIESEN : **m.**, ostegunez; **f.**, baranth. heren astizkⁿ *eta* urrietako azken ostegunian. — SALBATARREN : **m.**, neskanegunian.





Edirengia



I.	Framazouneria eta errejentak	1
II.	Deputatien arraberritziak	6
III.	Errejent eta labori	8
IV.	Paga, paga, paysaa !! » — Kargulantak ..	12
V.	Laborantchaz :	
	1 ^{ik} Allo hobena erruteko	14
	2 ^{ik} Mestura phastatik ogia	16
	3 ^{ik} Ehungerrena	17
VI.	Istoria eta erasi	20

